# DESAGERTUTAKO
# HONDARRIBIA



J. LAURENT Y CÍA. / IPCE FOTOTEKA - RUIZ VERNACCI ARTXIBOA

Pedro Barruso Barés

# DESAGERTUTAKO HONDARRIBIA

efadós®

DESAGERTUTAKO
# HONDARRIBIA

«Desagertutako Euskal Herria» bilduma
Lehen edizioa: 2026ko azaroa

Testuen ©: Pedro Barruso Barés
Euskarazko itzulpenaren ©: Ibai Sarasua Garcia
Hitzaurrearen ©: Koldo Ortega
Argazkien ©: hainbat egile
Bildumaren ©: Efadós argitaletxea
Edizioaren ©: Efadós argitaletxea

EFADÓS ARGITALETXEA
Edison kalea, 3A
08754 El Papiol (Bartzelona)
Telefonoa: 93 673 12 12
efados@efados.cat
www.efados.cat

Jatorrizko ideia eta diseinua
Efadós argitaletxea

Laguntzaileak
Hondarribiko Udala
KUTXA FUNDAZIOA

Azaleko argazkia
ND Foto / APAH

Kontsultatutako artxiboak
Gipuzkoako Artxibo Orokorra · Gipuzkoako Foru Aldundia (GAO)
Arabako Probintzia Artxibo Historikoa · PhotoAraba Arabako Foru Aldundia (APAH)
Hondarribiko Udal Artxiboa (UAH)
Luis Mari Elosegui funtsa
Espainiako Kultur Ondarearen Institutuaren fototeka (IPCE fototeka)
Kataluniako Argazkilaritza Ikasketen Institutua (IEFC)
Kutxa Fundazioa Fototeka

ISBN: 979-13-87658-99-1
Lege-gordailua: B-18708-2026

Obra hau edozein eratan erreproduzitzeko, banatzeko, publikoki komunikatzeko edo eraldatzeko, haren titularren baimena behar da nahitaez, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu behar baduzu, jo ezazu CEDROra (Eskubide Erreprografikoen Espainiako Zentroa) - www.cedro.org.

# Aurkibidea

6. or.
**HITZAURREA**

8. or.
**GOTORLEKUTIK HIRI TURISTIKORA**
XIX. eta XX. mendeen arteko bilakaera

12. or.
**HARRESIZ KANPO**
Gotorleku zaharraren ingurua

70. or.
**ALDE ZAHARRA**
Hiriaren iragan heroikoaren hondarra

106. or.
**ZABALGUNEA ETA PUNTALEA**
Hiriaren XX. mendeko eraldaketa

140. or.
**PORTUA**
Hiria itsasora zabalik

172. or.
**ITSASOAREN ETA MENDIAREN ARTEAN**
Bi eredu osagarri hiri berean

184. or.
**AURKIBIDE ALFABETIKOA**

# Hitzaurrea

## ATZOKO TAUPADAK

*Koldo Ortega, historialaria*

Kalitate eskasekoa behar du, derrigor, desagertutako Hondarribia gogoan hartzean taupa eta taupa hasten ez den bihotzak, baina urteen poderioz hiriak izandako eraldaketa onartu ezin duen burua ere ez dabil ondo. Esku artean dugun liburuaren lorratzak desagertutako Hondarribia uzten digu begien bistan.

Joan diren garaietan ateratako irudi historikoak hitz zehatz eta ezinbestekoekin batera ageri zaizkigu, eta sotiltasunez eta atseginez garamatzate desagertu den behinolako bizimodura, ertz eta ñabarduraz beteta zegoen hartara. Pedro Barruso Barés historialariak hautatutako irudi eta hitzak lagungarri izango zaizkigu denboran zehar bidaiatu eta egungo leku batera heltzeko: Hondarribira, unibertso aldakor honetan gu guztiok beste aldatzen den izaki hartara.


Liburu honetan, gotorlekua hiri turistiko bilakatzen ikusiko dugu; itsasoarekiko, landagunearekiko eta paisaiarekiko harremana aldatzen, baita herritarrekikoa ere: arrantzale, baserritar eta kaletarrekikoa.

Iragana eta oraina etengabe solasean dabiltzan txoko horietako bat da Hondarribia, erne dabilenari itxura batean dirudien baino askoz kontakizun konplexu eta sakonagoa eskaintzen diona.

Beharrezkoa zen liburu hau, begi berrien begiradatik egina, ondo ulertzeko Hondarribiak zer bide egin duen egun ezagutzen dugun hiria izan arte: komunitate, hiri eta herri bat, bere nortasunari guztiz uko egin gabe aldaketetara egokitzen asmatu duena.

Orri hauetan bildutako irudiek gonbita egiten digute hirian eta gizartean eraldaketa handiak ekarri zituen mende batean barrena ibil gaitezen. Irudi bakoitza leiho bat da, beste garai batera zabalik, abagune aparta eskaintzen diguna inguru desagertuak, paisaia eraldatuak eta gaur egun herritarren oroimenean dirauten bizimoduak ezagutzeko, eta, aldi berean, oraindik ere egungo hiriaren bereizgarri diren ezaugarrietako askoren jatorria ulertu ahal izateko.

*Desagertutako Hondarribia* ez da oroimen-ariketa hutsa. Beste deus baino gehiago, egunero ikusten dugunaren pean ezkutuan dagoen hiria ezagutzeko gonbit bat da. Gure kontzientzia eta gogamena ukituko ditu irudi bizitu eta biziekin gozaraziz, eta, aldi berean, arbasoen bizitzari hertsiki loturiko eraikinak nola desagertu diren pentsaraziko digu.



EGILE EZEZAGUNA/ HUA

# Sarrera

## GOTORLEKUTIK HIRI TURISTIKORA

### XIX. eta XX. mendeen arteko bilakaera

Konbentzioaren Gerran, 1793 eta 1795 artean, Hondarribiak gotorleku izateari utzi zion; izan ere, armadak harresietan egindako txikizioen eta artilleriaren garapenaren ondorioz, fortifikazioek garrantzia galdu zuten. Gerraren ostean, hiriak gudu-segida luze bat jasan behar izan zuen.

Gero, Independentzia Gerrak (1808-1814), Karlistadek (1833-1876) eta XIX. mendearen lehen erdiko ezegonkortasun politikoak Hondarribia krisi sakon batean utzi zuten, eta XIX. mendearen amaiera arte ez zuen handik irteten hasterik lortu.

Aduana kostaldera eraman izanak, mugaren inguruan industriarik ezarri ezinak eta trenbidea heltzean Irunek izandako garapenak ataka estuan utzi zuten Hondarribia.

Hiriaren ekonomia aldatu beharra zegoenez, agintariek aukera berriak bilatu zituzten Gipuzkoako kostako hainbat herritan garatzen hasia zen turismoaren industria berrian.

Turismoa hiriaren motor ekonomiko bilakatu zen, eta, landaguneko eta itsasoko usadiozko lanekin batera, hiriaren fisonomia goitik behera aldatu zuen turismoaren industria sendoa garatu zen.

Turismoaren industriaren gorakadari esker, hirigintzako garapen handiak egin ziren, batez ere harresiz





EGILE EZEZAGUNA / IEFC - ROISIN BILDUMA




EGILE EZEZAGUNA/HUA

## SAN PEDRO KALEA

Magdalena errebala, harresiz kanpoko auzoetako bat, Hondarribia hedatzeko eremu bilakatu zen. XX. mendetik aurrera, ostalaritzako negozioak zabaltzen hasi ziren, eta hantxe sortu zen hiriaren lehen garapena, baita inguruaren urbanizazio berria ere.

## TURISMOAREN HASIERA

XIX. mendearen amaieratik aurrera, Hondarribia turismoak bultzatutako eraldaketa jasaten hasi zen. Horren ondorioz, hirian lehen hotelak sortzen hasi ziren. Horietako bat zen Miramar hotela, gero Concha izena hartu zuena.





kanpo. Hori dela eta, Alde Zaharrak gainbehera egin zuen XX. mendea aurreratuxe egon arte.

XIX. mendetik aurrera, Hondarribia gida turistikoetako oporretako helmugen artean agertzen hasi zen, aberatsek itsasoaz eta naturaz ondoz ondo gozatu baitzezaketen.

Horrexegatik, uda pasatzeko etxetzarrak eraikitzen hasi ziren Hondarribian, udalak emandako erraztasunek bultzatuta. Etxetzarrak eraikitzearekin batera, hotel-industria nabarmena garatu zen, hirian halako hainbat zabaldu baitzituzten.

Hirigintzako garapen horrek ekarri zuen kalterik ere, ordea; udalak hirigintzako garapenak kudeatu nahiak Hondarribia krisi ekonomikoan murgildu baitzuen XX. mendearen erdialdera arte.

Gerra Zibileko hausturak garapenok eten zituen, baina berrogeiko hamarkadatik aurrera berriz ekin zieten, aurreko urteetan aurreikusitakoa baino askoz apalago, ordea.

XX. mendearen erdialdean ere turismoaren alde egin zuten, hiriaren ekonomiari bultzada emateko asmoz, baina turismoaren fenomenoa aldatua zen ordurako. Elitearen turismo urri haren ondoren, turismo masiboa heldu zen; Hondarribia hartatik kanpo gelditu zen hein handi batean, ordea.

Horrek guztiak eragin du Hondarribiari egungo hiriari itxura eman dion eraldaketa handia. Dena dela, iraganeko traza ugarik iraun dute gaur arte ikusgai.



MARCEL DELBOY PHOTOTYPIE / APAH

## HARRESIZ KANPO

# Gotorleku zaharraren ingurua

Hondarribira Irungo errepidetik iristean, harresiz kanpoko bi auzo ditugu: Mendelu, Jaitzubiako errekaren ekialdeko ertzean; eta Amute, erreka gurutzatu eta mendebaldean. Hiribilduaren harresietatik kanpoko guneetako bi dira, eta, hiriaren hirigune historikotik hurbilen dagoen eremuarekin batera, eraldaketa handia jasan zuten XIX. mendearen amaieraren eta XX. mendearen artean.

Harresiz kanpoko inguru horretan daude Hondarribiko eraikinik zaharrenetako batzuk, kaputxinoen komentua eta Santa Engrazia baseliza, besteak beste. Aldi berean, ordea, Mendelun eta Amuten elementu modernorik ere izan zen, futbol-zelaia eta, gero, Donostiako aireportua, esaterako.

Harresietatik hurbil hiriaren modernizazioa agerian utzi zuten elementuak dauzkagu, haien inguruan egon baitziren lehen kasinoa, hiriko aurrenengo hotelak, Viteri eskolak eta zezen-plaza, Guadalupeko santutegirako bidearen hasieran egon zena, adibidez.




EGILE EZEZAGUNA/ HUA

## IRUNERAKO ERREPIDEA

Hiriak gotorleku izateari utzi zionez eta trenbidea Irunera heldu zenez, Hondarribia hirigintzaren eta industriaren garapenetik kanpo antzean gelditu zen. Hirira sartzeko errepidea Mendelutik barrena zihoan, eta han ikus ditzakegu tranbiaren bidea eta errepidearen eta Bidasoaren bokalearen arteko lurrak hartzen dituzten baratzeak eta soroak. Irudia egin zenerako hasiak ziren beste muturrean, itsasargirako errepidean, hiriaren eredu berria garatzen: horren erakusgarri ditugu Peñón hotela eta inguruko lehen etxetzarrak, etapa berri baten hasieraren seinale.




EGILE EZEZAGUNA/ HUA